



GIPUZKOAKO GIZARTE  
LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO  
SOCIAL DE GIPUZKOA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE ARABA  
ARABAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA



## ARARTEKOAREN ETA EUSKADIKO GIZARTE LANEKO ELKARGOEN BATERAKO ADIERAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERAZ ARARTEKOAK EGIN ZUEN TXOSTEN BEREZIAREN (2009) BILAKAERA AZTERTZEARI BURUZ

Euskadiko gizarte laneko profesionalen elkargoek eta Ararteko erakundeak bilera egin dute, oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera aztertu eta balioesteko. Ondorio hauek atera dituzte:

la 5 urte igaro dira Arartekoaren txosten berezi hau jendaurrean aurkeztu zenetik: *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera*. Orduan **gomendioak** eragin zituzten gaiak, oro har, oraindik konpontzeko daude.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak **funtssezkoak** dira pertsonen beharrak artatzeko eta ahultasun egoerak antzeman eta lantzeko. Alabaina, Gizarte Zerbitzuen Legeak ematen dien eginkizuna betetzeko, ezinbestekoa da gainontzeko erakundeek esku hartzea eta beste zerbitzu eta sistema batzuekin lan egitea.

Alde handia dago Gizarte Zerbitzuen Sistemari oinarrizko gizarte zerbitzuei aitortu zaien zereginaren eta egin ahal izaten ari diren lanaren artean, eta alde hori nabarmenagoa da oraingo krisialdian. Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Sistemari **sartzeko atea** izan beharrean, beraien betekizunak (ez, ordea, lan-zama) neurri batean hustu egin direla ikusten da, eta beste administrazio batzuen edo, areago, hirugarren sektorearen lan subsidiario bat egitera baztertu dituztelako sententzia dute.

Ez dago jarduteko eredu komunik, ez artaturiko pertsonekin banan-banan esku hartzei dagokionez, ezta oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizun, helburu, betekizun eta ezaugarriei dagokienez ere. Hori zailtzen ari da gizarte zerbitzuen sistema bakarri eratzeko bidean aurrera egitea. Sistema bakar horrek **erdi-erdian** kokatuko lituzke oinarrizko gizarte zerbitzuak.

Honatx **egoera hori azaltzen duten arrazoi**etako batzuk:



GIPUZKOAKO GIZARTE  
LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO  
SOCIAL DE GIPUZKOA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE ARABA  
ARABAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA



- Gizarte Zerbitzuen Legea ez da garatu eta ezarri. Berriki zerbitzu eta prestazioen kartera, mapa eta txosten ekonomikoa onartu badira ere, oraindik konpromiso asko daude betetzeke. Horretarako, behar-beharrezkoa da erakundeen artean akordioak lortzea eta zerbitzuak eta pertsoneri ematen zaien gizarte-laguntza hobetuko dituen araudia lantzea.
- Ez dago eredu argi eta adosturik gizarte zerbitzuak garatzeko finantza-zamak erakundeen artean bana daitezten.
- Udalak ahul daude legeak eman dizkien eginkizunei aurre egiteko, zertzelada hauen pisua arintzen ez den bitartean: esku hartzeko eredu komunik ez izatea, finantza-ezegonkortasuna eta udalaren tamainarekin lotuta dauden erantzunak zaituak eta askotarikoak izatea.

Gizarte zerbitzuak eta pertsonentzako gizarte-arreta garatu nahi badira, **administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa** behar dira. Hori dela eta, **Lanbiderekin** (Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) **koordinatzeko** eta koordinazio soziosanitarioko zailtasunak aztertu dira. Lanbiderekiko koordinazioa informazioa partekatzean oinarritzen da batik bat, aplikagarriak elikatzean, eta ez dira adostu oinarritzko gizarte zerbitzuek egiten duten gizarte-diagnostikoaren balioa eta esku-hartze sozialaren eginkizuna. Egiartzatu denez, pertsonak artatzean helburu berberak izan behar dira. Gizarte langileek iritzi desberdinak dituzte Lanbidek laguntzak ukatu, eten edo bertan behera uzteaz hartzen dituen erabakien gainean, izan ere, erabaki horietako batzuek zaildu egiten dute pertsonarekin egiten den gizarte-lana, eta oinarritzko gizarte zerbitzuen betekizunetan eragiten dute. Horrela, zerbitzuok bat-batean aurre egin behar izaten diote baliabiderik ezari, familien egoerak okerrera egin ez dezan. Bestalde, koordinazio-harremanak pertsona jakin batzuk libre egotean ala ez egotean oinarritzen dira.

**Koordinazio soziosanitarioko** zailtasunek bi sistemen arteko desorekarekin dute zerikusia (azaldu duguna bezalako sistema zatitua, batetik, eta Osasun Sistema, bertikala eta zentralizatua, bestetik). Gainera, Osasun Sistemak jarduera-denborak markatzen ditu, eta denbora horiek baldintzatu egiten dute esku-hartze soziala bera. Era berean, eremu soziosanitarioa gutxi garatu da gizartean larriki baztertuta dauden pertsoneri eta informazioa partekatzeari dagokienez.



GIPUZKOAKO GIZARTE  
LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO  
SOCIAL DE GIPUZKOA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE ARABA  
ARABAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA



Bukatzeko, arazoak daude **komunitateko gizarte-lana** garatzeko. Horretarako, hainbat doikuntza egin beharko lirateke antolaketan (laneko ordutegia, lanbide profilak, eginkizunak...) eta komunitatean esku hartzeko eredu komun bat eratu beharko litzateke, Gizarte Zerbitzuen Legeak sustatu zuen tokia bete dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a

Iñigo Lamarca Iturbe  
Arartekoa

Susana Martínez de Lagrán  
Arabako Gizarte Laneko Elkargo  
Ofizialeko presidentea

Carmen González  
Bizkaiko Gizarte Laneko Elkargo  
Ofizialeko presidentea

Coro Amunarriz  
Gipuzkoako Gizarte Laneko  
Elkargo Ofizialeko presidentea